

MAILEGU EDO KREDITU

BATEN KITAPENA

Noiz baliogabetu dezaket mailegu edo kreditu bat?

Zure mailegua edo kreditua nahi duzunean bertan behera utz dezakezu. Ez du axola txartela duzun ala ez, bertan behera utz dezakezu.

Zer egin behar dut ezeztatzeko?

Bertan behera uzteko ez duzu azalpenik eman behar. Maileguan utzi zizuten dirua itzuli besterik ez duzu egin behar eta sortutako interesak mailegua edo kreditua izan duzun bitartean.

Nola jakin dezaket zenbat diru ordaindu behar dudan?

Eskatu zure bankuari edo finantza-erakundeari dokumentu hau: **ordainketa-gutun**. Dokumentu honetan esango dizute zehazki zenbat ordaindu behar duzun mailegua edo kreditua kitatzeko.

Eta kredituari lotutako txartela badut?

Ez da ezer gertatzen.

Txartela itzuli besterik ez duzu egin behar.

Zer beste gastu kobra diezadake bankuak edo finantza-erakundeak?

- Mailegua edo kreditua kitatu arte erabili dituzun zerbitzu guztiak.
- Mailegua edo kreditua behar baino lehen itzultzeagatiko (ordaintzeagatiko) komisioa.
Sinatu zenuen finantziazio-kontratuan jartzen badu bakarrik.

Adibidez:

Mailegatutako dirua

24 hilabetean itzuliko duzula adostu baduzu,

eta kontratua sinatu eta

15 egunera itzultzen baduzu,

bankuak edo finantza-erakundeak itzulketa (ordainketa)

aurreratuko komisio bat kobra diezazuke.

Zer gertatzen da zerbitzuren bat aldeztu aurretik ordaindu badut?

Bankuak edo finantza-erakundeak, normalean, ordaindu duzun eta erabili ez duzun diruaren zatia itzuliko dizu.

Adibidez:

Asegurua urtebeterako aurretik ordaindu baduzu eta 6 hilabetera ezeztatzen baduzu, bankuak edo finantza-erakundeak dirua itzuliko dizu erabili behar ez duzun 6 hilabetei dagokiena.

Nola abisatu bankuari edo finantza-erakundeari?

Bankuari edo finantza-erakundeari jakinarazteko mailegua edo kreditua kitatu nahi duzula, posta elektronikoz, postaz edo telefonoz egin dezakezu.